



fagorederlandgroup

INGURUMEN POLITIKA



HUMANITY
AT WORK

MONDRAGON

INGURUMEN POLITIKA

1. Helburua

Ingurumen politikak erreferentziazko esparru bat osatzen du, zeinak Fagor Ederlan Taldea ingurumen praktika arduratsuak eta jasangarriak hartzen gidatzen duen. Konpromisoak ezartzen ditu eta helburu, estrategia eta jarduera ildo espezifikoaren bidez gauzatzen diren jarduera printzipioak definitzen ditu, Fagor Ederlan Taldearen estrategia eta kudeaketan integratuta.

2. Aplikazio eremua

Ingurumen politika hau Fagor Ederlan Taldearen jarduera, negozio eta langile guztiei aplikatu beharrekoa da, baita balio katearekin eta beste interes talde batzuekin dituen harremanetan ere.

3. Konpromisoak

Fagor Ederlan Taldeak Garapen Jasangarriaren aldeko apustua egiten du, eta ingurumena babestea da garapen jasangarriaren alde egiteko funtsezko alderdia. Beraz, honako konpromisoak hartu ditu horretarako:

- **Kudeaketa Sistema** bat edukitzea, zeinak indarrean dagoen legeria eta borondatez hartutako beste konpromiso batzuk errespetatzea ez ezik sistema ezartzea eta hobetzea ahalbidetuko duen, prebentzioaren ikuspegitik jarduteko, baliabide naturaletan eta biodibertsitatean inpaktu kaltegarriak eragitea saihesteko, eta ingurumenari lotutako jardueraren hobekuntza sustatzen duten ekimenak bultzatzeko.
- **Plan Estrategikoetan eta Kudeaketa Planetan** arlo hauen garapenera bideratutako baliabideak txertatzea:
 - **Baliabide Naturalen Kontsumo Jasangarria** egitea, uraren kontsumoa eta lehengaien erabilera ere barne.
 - **Berotegi Eftektuko Gasen Emisioa** murriztea, hiru irismenetatik datozen emisioak kontrolatzea eta **Deskarbonizazio** Plan bat monitorizatzea.
 - **Energia** eta erregaiak **eraginkortasunez erabiltzea**, eta **energia berriztagarriaren erabilera** sustatzea.
 - **Ekonomia zirkularra** sustatzea, eta **Materialen eta Hondakinen Murrizketa, Berrerabiltzea eta Errebalorizazioa/Birziklatzea** bultzatzea balio kate osoan.
 - **Airearen, uraren eta lurzoruen kalitatea** kudeatzea, eta horien kutsadura prebenitzea, etengabeko jarraipena eginez eta kutsatzaileen erabilera murriztuz.
 - **Kutsadura akustikoa** saihestea, eta zarata industrialaren mailak kontrolatzea.
 - **Produktu kimikoak arduraz kudeatzea**, produktuak fabrikatzeko prozesuetan substantzia mugatuen erabilera identifikatuz, minimizatuz eta ahal bada ezabatuz, une oro araudia betetzen dela bermatzeko.
 - **Biodibertsitatea babestea eta lurraren erabilera eta deforestazioa zaintzea**, bere eragiketok eragiten dituzten ekosistemak aztertuz, batez ere biodibertsitatearen funtsezko eremuak, eta gure eragina minimizatuz.
- **Prestakuntzarako/informaziorako programak eta parte hartzeko kanalak** ezartzea, pertsona guztiek Ingurumeneko Politika, Helburuak eta Kudeaketa Sistema betetzeko aurreikusitako jarduerak gauzatzeko konpromisoa hartu dezaten.
- **Balio kateko interes talde** guztiekin lankidetzan aritzea, gure jarduerak eta gure produktuek ingurumenean eragindako inpaktua murrizteko eta konpromiso eta estandar energetikoetan aurrera egitea sustatzeko.

4. Onarpena eta jarraipena

- **Onarpena:** Politika hau Fagor Ederlan Taldeko **Zuzendaritza Kontseiluak** landu eta onartu du, bera baita politika aplikatzearen arduraduna, eta horrela goi zuzendaritzak Jasangarritasun Estrategiarekin duen konpromisoa erakusten da eta enpresaren estrategia globalean integratzen dela ziurtatzen da.
- **Jarraipena:** Politika honen implementazioa gainbegiratzeko Jasangarritasun Batzorde bat dago, enpresako hainbat arlotako ordezkariak osatua, zeinak Fagor Ederlan Taldeko **Zuzendaritza Kontseilua** zuzenean informatzen duen.
- **Berrikuspena:** Politika hau berrikusi egingo da, eta hala badagokio eguneratu, aldizka, beti Fagor Ederlan Taldeak esparru honetan dituen asmoak erakutsi nahian eta legeetako aldaketak eta interes taldeen iruzkinak eta iradokizunak ere kontuan hartuta.

Data	Onartuta
12/2024	Fagor Ederlan Taldeko Zuzendaritza Kontseilua